

Txupinazoa aukeratzeko irizpideak

Dagoen zor historikoa orekatzeko helburuarekin urtero **emakumeek txupinazoa botatzeak izango du lehentasuna** (behintzat zorra orekatu arte). Hau ezingo balitz, ondorengo irizpideek izango dute lehentasuna, bere hurrenkeraren arabera:

- 01 → Talde edo kolektibo **mistoa** izatea.
- 02 → **Bi generoak bermatuta** egotea, hau da, txupinazoa bi elkarte edo kolektibok botatzea. Adibidez, gimnasia erritmiko taldeak (denak neskak direla) eta txistulariek (denak gizonezkoak direla).
- 03 → **Alternatiboa**. Hau da, ezingo balira bermatu aurreko irizpideak, eta gizon talde edo kolektibo batek botako balu txupina, hurrengo 2 urteetan emakumezko talde edo kolektibo batek bota beharko luke.
- 04 → Gizonezkoek osatutako talde edo kolektibo batek botako balu txupina, **berdintasunari keinu bat** egitea eskatuko zaie (hala nola, indarkeriaren kontrako bandera bat eramatea, pegatinak, hitza hartu ezker berdintasunaren aldeko mezuak botatzea...)

